

Iñaki Peña, Lehiakortasunerako Euskal Institutua

“Aldatu behar dugun errealitate bati buruzko datuak”

2008ko irailaren 1a

“EUSKAL HERRIAN EMAKUME EKINTZAILE BAKOITZEKO HIRU GIZON EKINTZAILE DAUDE”

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuak, Euskal Unibertsitatearen XXVII. Uda Ikastaroen eta XX. Europako Ikastaroen barruan, antolatu duen “Emakumeak enpresaren erronkaren aurrean: ideiatik proiektura, proiektutik errealitatera” ikastaroan, Lehiakortasunerako Euskal Institutuko Iñaki Peñak, emakume ekintzaileak Euskal Herrian duen egoeraren berrikuste osoa egin zuen; horretarako, GEM Txostenean agertzen diren datuak hartu zituen oinarri.

Zentzu horretan, Iñaki Peñak, jarduera ekintzaileak esan nahi duenaren inguruko laburpen bat egin ostean, Euskal Herrian ekintzailetza tasa apala dagoela adierazi zuen, eta tasa hori, emakumearen kasuan, are apalagoa dela. Zehazki, Euskadiko Autonomia Erkidegoan, emakume ekintzaile bakoitzeko bi edo hiru gizon ekintzaile daude.

Adituaren ustetan, familia eta lana adiskidetzeko zailtasunak, eta gaur egun, emakumeak kontratudun pertsona gisa lan-munduan sartzeko aukera gehiago izatea, bi gako dira jarduera-ekintzailean emakumeak erakusten duen kopuru baxua kontuan hartzerakoan.

Ildo horretan, Iñaki Peñak adierazi zuenez, emakumeen jarduera ekintzailea Euskal Herrian, Europako gainerako herrialdeetan bezalaxe, beste arrazoi batzuegatik baino, “beharrak” bultzatuta sortzen dela adierazten dute ikerketek. Gainera, ikerketa horien arabera, emakumeen enpresa-proiektuek izaera sendoagoa dute, ekimen berritzaileak bere gain hartzeko joera handiagoa dute eta, batez ere, hirugarren sektorean, transformazio-azpisektoreetan edo enpresa-zerbitzuetan sortzen dira.

Iñaki Peñaren ustez, emakume ekintzaileek beldur handiagoa diote porrotari gizonezkoek baino, nahiz eta EAEko emakume ekintzaileen erdiak baino gehiagok unibertsitate-titulua izan.

Hitzaldian, Iñaki Peñak gaineratu zuen, orokorrean, emakume ekintzaileek beren enpresa-proiektuak 35 eta 44 urte artean jartzen dituztela martxan eta gutxiago fidatzen direla, eta beraz, gizon ekintzaileek baino gutxiago erabiltzen dituztela harreman-sareak.